

ARRATIAKO DANTZA-KOPLLEN LIBURUAREN AURKEZPENA

Jabier Kalzakorta

Liburu honek Arratiako dantza-kopla zaharrak biltzen ditu, eta zaharrak badinot koplarik gehienak gerra aurrean, Arratian, batez bere Diman eta Zeanurin, kantatutakoak direlako da. Liburu honetan bost-sei dantza-kopla bilduma eskaintzen ditut. Zeanuriko bildumen artean batez bere Eulogio Gorostiagak bildu zituenak dira ugarienak. Dimako bildumetan, ostera, 1936-1939ko gerra aurrean bildutakoak bi bilduma dira. Bata 81 koplakoa, eta, bestea, 109 koplakoa. Azken bilduma Yurre'tar Yulen, Nikolas Barrenetxea Uribarrena (1898-1988) kaputxinoak bilduak dira 70eko hamarkadan.

Koplak modu askotakoak dira. Irudia agertzen daben kopla ederrak askotxo dagoz. Hona hemen bat:

Itsasoan arrain bateri
deitzen dautse lazune;
gazterik akordau jatzun
bear zendula lagune.

Kopla honetako lehen erdian kontatzen dan irudiak tope egiten dau gerora kontatzen danagaz. Lehen erdian, *incipit* edo irudia dalakoan, irudimenak hegaz egin eta izadiko irudi eder bat agertu ohi da: *itsasoan arrain bateri deitzen dautse lazuna*; bigarren alderdian, pentsamenduan edo, Aitzolek esaten eban moduan oldozkunean, besterik dan ideia zuzen eta zorrotza: *gazterik akordau jatzun bear zendula lagune*.

Dantza-kopletan datozen testu txikietan halako zirikatze edo adarjotze edo interaktuazino moduko bat be egon ohi da batzuetan. Kopla-kantariak aurrean dituen neska-mutilak zirikatu egin ohi zituen. Emon daigun adibide polit bat:

Mutillok dagoz pumatzen
pumatzen eta pentsatzen,
nori esango ete deutsien:
yantzan erdu apur baten!

Gerra aurreko erromerietan be ez ziran neska-mutil guztiak dantzan ibiltzen, asko begira izango ziran. Begira egozanetariko asko, fumatzen eta pentsatzen: *nori esango ete deutsien yantzan/erdu apur baten!* Uste dot kopla dotorea dala, eta kopla gehienetan legez, berba gitxigaz asko esaten da. Emon dagidan beste adibide esanguratsu bat:

Lekuen-lekuen da
larrean arantzea,
abarka zarrak baño
oba zapatea.

Nik uste dot kopla hau be, aurrekoa legez, sasoi bateko erromerietako argazkia dala. Uste dot erromeriarra etozan neska-mutilak, guztiak ez baziran be, gehienak abarkakaz etorriko zirala eta abarkak orduan xingleak, azalak askotan, ibiliaren ibiliz gastautakoak. Erromerian dantzan ibiliko ziranak abarkadunak izango ziran, nik uste eta zapatadunak gitxi. Hortik, beraz, kopla hau.

Kopla bakotxa testu autonomo bat da, gehienetan. Beste batzuetan kopla bat baino gehiago lotuta egon ohi dira. Kopla bakotxak mezu bat emon ohi dau, mezu ironikoa askotan. Emon daigun adibidetxo bat:

Bilbo, Bilbo esaten daurie
ez dago Bilbo langorik,
txakolina eraten daurie
batere bildur bagarik.

Bilbon, Bizkaiko uri nagusian, aberastasun handia egoan herri txikien ikusian eta txakolina "bildur gabarik" edaten eben; hau da, ugari; herri txikietan, ostera, bildurragaz, gitxi be gitxi. Antzerako beste kopla bat argitaratu eban Azkuek *Euskalzale* aldizkarian:

Bilbo esaten daure Bilbo
ez dago Bilbo langorik,
txokolatea artzen dabe
fotakaz bero-berorik.

Txokolatea ez zan eguneroko jatekoa eta fotakaz, hau da ogi bigun eta apatzagaz, jatea gitxiago. Bilbon, ostera, Ameriketatik etorritako kakaoagaz egindako txokolatea herri txikietan baino ugariago egongo zan. Horra Bilboko aberastasuna.

Koplen munduan badira maitasunezko kopla fin askoak be. Ekarri daidazan bi:

Udabarriko lorea
eder maiatzean.
Ez egunez etorri
erdu arratsean.

Maitasunezko kopla onetan irudi eder bat dator: *udabarriko lorea eder maiatzean*. Bigarren zatian agindu sarkor bat: *ez egunez etorri, erdu arratsean*. Maitasunezko beste kopla bat esango dot orain:

Neure laztana laztango
kalean negarrez dago,
aren negarra gozoagoa da
askoren irribarrea baño.

Kopla honek, aurrekoa baino saminagoa dan arren, badauka bere edertasuna. *Arratiako dantza-koplak* bilduma honetan honelako ehunka dagoz. Eta kopla bakotxak bere mezu zorrotzean ideia bat edo gehiago baditu, ehundaka mezu eta ideia ditugu liburuan bilduta.

Azkenik eskerrak emon behar ditut. Eskerrak Arratiako Mankomunitateari liburu hau kaleratzeko asmoa egia bihurtu daualako eta eskerrak Igone Etxebarriari, bestek beste, liburu honen prestaketan ardura handia hartu ezeze, inprenta-probak zuzentzeko lana bere gainean hartu daualako.